



Testua eta argazkiak  
Guillermo Vio

## Julei Ladakh, julei Stok Kangry (6153 m)

■ Stok Kangry 6153 m

6153 metro dituen Stok Kangry mendia igo eta Markha haranean zehar trekkingaz gozatu... horixe zen gure ideia, horiexek gure asmoak.

### LADAKHEN GAUDE. LEKUTAN!

Irribarre batez non-nahi *julei* esaten dute, ongi etorri alegia. Ongi etorri *Ladakhera*, Indiako iparraldera, Indiako Himalaiaren bihotz-bihotzera. Hegazkinak, hegaldaldi labur eta zirrargarriari *Delhitik Leh* hirira ekarri gaitu mendi erraldoi eta elurtuen gainetik. *Lehtik* gertu, gainera, ostartean *Stok Kangry* mendia ikusgai izan dugu minutu batzuetan hegazkineko leihatilatik... ezusteko ona!

*Lehn* lurra hartu berriak gaudelarik, gure pasuo motel eta neketsuek zein altueratan gauden gogora ekarri digute. Motxilatzarra hartu eta hoteleko 2. solairuraino igotzeak birrikak frogan jarri, eta geure altuerako egokitzapena eskasa baino eskasagoa dela salatu digu. *Ladakheko* hiriburua den *Leh* 3520 metroko altueran dago eta, hegazkinetik jaitsi bezain laster, ahalegin ñimiñoena ere sufrikario bihurtu zaigu. Behar-beharrezkoa dugu, inolako zalantzarik gabe bizpahiru egun *Leh* hirian ematea. Altuerarako egokitzeaz gain, badago zer ikusi eta zer bizi hiri honetan, baita inguruko herrietan ere.

**Guillermo Vio Dominguez** (Sopela, 1959): Irakaslea lanbidez, mendiak igotzea eta trekkingak egitea du gustuko. Argazki kamara soinean duela, mendi garai ezagun asko igo ditu: Aconcagua, Chimborazo, Coropuna, Elbrus, Damavand, Kilimanjaro... Pyrenaican argitaratu eman ditu jadanik artikulatu batzuk, Eslovakiako Tatras (1992), Irango Damavand (2002) edo Greziako Olinpo mendiez (2003).

### Altuerarako egokitzeaz gain, badago zer ikusi eta zer bizi Leh hirian

Hurrengo egunetan, *Leh* hirian murgildu gara eta bere kale estu eta zaratatsuetan barna, *Shankar gompa*, *Shanti estupa* edota *Tsemo* gaztelua bisitatu ditugu. Eta inguru hauetaz gozatzeaz gain, birrikak eta burua prestatzen hasi gara sei mila metroko altuerari aurre egiteko. *Leh* hiritik oso gertu, *Thikse* eta *Shey* monasterioak eta *Stok* jauregia daude, budisten ohituretan murgiltzeko aukera paregabea. 60. hamarkada arte atzeritarrek debekatuta izan zuten mundutik isolatuta zegoen lurralde honetan sartzea, eta gaur egun turista eta mendizale bakarrak ez garen arren, sarritan beste mundu batean gaudela iruditzen zaigu. Irudipena soilik?

Historikoki *Ladakh* Tibet Txikia izenez ezaguna egin da, kulturalki eta linguistikoki lotura handia izan baitu Tibetekin. Hiriburuan budismoa, hinduismoa eta islamismoa elkarrekin bizi badira ere, hiritik kanpoko herri eta txokoetan budismoa da gehien nabarmen-tzen dena. "*Om Mani Padme Hum*" mantra lau haizeetara barreiatzen dituzten otoitz banderatzu koloretsuak gure bidaideak izango dira uneoro.

### UZTAILA DA ETA BAGOAZ

Udan gaude, uztailean hain zuzen ere. Eta datu hau aintzat hartzekoa da, urtaro hau baita egokiena paraje hauetara etortzeko. Askotan Himalaia aldean igoera edota

trekkingen bat prestatu nahi dugunean, montzoi-garaiak mugatzen du gure plana. Nepalen esate baterako, nahitaez aurre eta post montzoietara egokitu behar ditugu geure asmo eta planak. *Ladakhen*, aldiz, montzoiak ez dute eraginik eta urte gehi- netan, salbuespenak salbuespen, udan ez da arazo berezirik izaten. Eskualde hau iparraldean baitago eta Himalaia mendikate luze eta erraldoiak hormarena egiten du montzoiaren abiada oztopatuz. Urtaro honetan eskualde hau oso lehorra da. Beraz uztaile eta abuztua dira hilabeterik egokienak paraje hauetara ibili eta bertako mendi garaietara igotzeko.


*Stok Kangry* mendia ikusgai izango dugu turismo eta egokitzearen lehen egunetan, *Leh* hiritik ez baitago oso urrun. Gure begiek tontor zorrotza bilatuko dute edozein abagunetan. Hala ere, ez dugu itsutu behar, tontorrerantz abiatu baino lehen *Markha* haranean zehar trekking ederra dugu egiteko eta. *Markha* harana zeharkatzen duen trekking hau 9-10 egunetan egiten da eta *Stok Kangry*ko oinarritzko kanpalekutik oso gertu pasatzen denez, aukera dago luzapena eskatu eta *Stok Kangry* mendia igotzeko beharrezkoa den baimena eskuratzeko. Guztira 13 eguneko zeharkaldia.

### IBILALDIA KANG YATSEKO GLAZIARRERAINO

*Kang Yatse* mendiaren magalera heldu arte hiru egun eman ditugu ibilera lasaian. Lehenengo biak desnibel gutxiko jardunak izan dira eta hirugarrenean, aldiz, ederto berotu ditugu hankak. Lehen eguna erdi "turistikoa" dela esan daiteke, laburra oso eta inolako zailtasunik gabekoa. *Leh* hiritik autoz joan gara *Hemis*eraino eta bertan, mendiaren magalean *Ladakheko* monasterio garrantzitsu eta ikusgarrietariko bat ezagutzeko parada izan dugu. Ondo merezitako bisita egin on-



**E**L artículo nos describe con todo detalle el trekking realizado por Iñaki Gilisasti y Guillermo Vío a lo largo del valle de Markha en julio de 2013. El recorrido "estándar" de estas tierras altas del Himalaya de la India, no contempla la ascensión a la cima más reseñable de la zona. Sin embargo, Iñaki y Guillermo combinaron el trekking con la ascensión al Stok Kangry de 6153 m, poniendo así la guinda perfecta a la ya interesante experiencia que supone visitar las tierras y pueblos que habitan esta aspera zona de la India.



■ Leh hiriko gaztelua



■ Penitenteak Churkimotik gertu

doren, *Martselangera* autoz abiatu gara eta bertan eman diogu hasiera ibilaldiari, *Sang Sumdo* (3750 m) herrixkaraino heltzeko hain zuzen ere. Kontuan hartu behar da *Sang Sumdo*raino autoentzat egokitutako pista heltzen dela. Beraz, autoak nahikotxo hurbil gaitzake eta autoaren txoferraren abileziaren eta gidatzeko duen gogoen arabera, bi edo hiru orduko ibilaldi labur eta lau samarra izan daiteke. Beraz, lehen egun honek ahalegin txikia eskatu digu.

## Lehenengo bi egunak desnibel gutxiko jardunak dira, turismoa eta ibilbide laburrak

Bigarren egunean *Sang Sumdotik* (3750 m) abiatu eta *Chukirmoraino* (4150 m) heldu gara. *Sang Sumdon* hasten baita benetako trekkinga. Autoei eta zibilizazioa deitzen diogun horri agur esan eta hemendik aurrera mandoek garraiatu dute gure zama. Ibaiaren parean, lantzean behin gurutzatu behar dugularik, ekin diogu ibilbideari *Chukirmora* iritsi arte. Aurrekoa bezalaxe, etapa hau laburra da, hiruzpalau ordukoa, eta gainditu beharreko desnibela 300 metrokoa. *Chukirmo*





■ Artzaina eta artaldeak Nimaling sarioian



■ Azken metroak tontorrerako

leku atsegina da eta aukera izan dugu arratsalde inguruko bazterrak ezagutzeko, kanpamentutik gertu dagoen penitente formazio ikusgarri bat esate baterako. Trekkingaren lehen bi egun hauek nahiko ibilbide laburrekoak dira eta etxeko urruntasunetik ikusita burura zitzaigukeen etapa bakarrean biak biltzea, baina errakuntza handia litzateke lehen eguneko *Hemis* monasterioa ez bisitatzea. Gainera, antolakuntza dela eta, *Sang Sumdo* halabeharrezko bilgunea dela ematen du (materiala atondu, zama zaldiengan banatu eta abar).

Hirugarren egunean *Chukirmotik* (4150 m) abiatu eta *Nimalingra* (4880 m) heldu gara *Kongmaru La* lepoa (5120 m) gainditu ostean. Bukatu dira egun lasaiak. Gaurkoa gogorra, aldapatsua, luzea eta neketsua da, baina ederra benetan. Gozagarria da egun honetako ibilbidea. *Chukirmotik* irten bezain laster, *Kongmaru Larainoko* atsedetik gabeko igoerari ekin diogu, hasieran ibaiaren arroila estu-estuan barna eta gero lursail zabalagoan zehar, baina beti aldats gora pikoan. *La-k* 'lepoa' esan nahi du, eta *Kongmaru* leporainoko dagoen mila metroko desnibela neketsua suertatzen da, baina esan bezala, ederra benetan. Behin lepora heldu ondoren, ikuspegi zoragarriaz gozatzeko aukera izan dugu. Hodeiertzean *Karakorumeko* mendiek eta aurrez aurre dugun *Kang Yatse* mendi ikusgarriak (6400 m) ase dizkigute begiak. Lepotik jaitsiera arinean *Nimalingo* artzain guneraino heldu gara. Egun honetako 6/7 orduko ibilaldiak saria izan du *Nimalingera* heltzean: *Kang Yatseko* glaziarren peko artzainen sarioian egin dugu lo, ardi eta yak artean.

## MARKHA HARANEAN ZEHAR

Trekkingaren bigarren zati honetan beste hiru egun eman ditugu, oraingoan *Markha* haranean zehar. Horretarako geure ibilaldia- ren 4. egun honetan *Nimalingtik* (4880 m) *Hankar* (4000 m) herrira joan gara. Aurreko egunean igotako ia guztia jaitsi behar da. Landa zabaletatik ibili gara hasieran, gero *Nimaling* ibaia zeharkatu dugu eta 4 edo 5 orduko jaitsiera lasaian, *Hankar* herrixkara heldu gara, *Markha* haranaren sakonean. Bidean artzainek egindako "txortena" ikusi ditugu non-nahi eta haietan dauden eskaintza-harri landuek eta idatziek harritu gaituzte. *Txorten* hauek norabidearen esku- man utzi behar dira ohiturei eta sinemesnei men eginez. Era berean, adi bagoaz, edelweiss loretxoak ere ikusteko aukera izan dugu goi aldeko ordeka hauetako haitzen artean.

Hurrengo bi egunetan *Markha* haranetik ibili gara, horrela tre-kkingaren bosgarren egunean *Hankar* (4000 m) eta *Markha* (3850 m) herrixkak lotu ditugu. Gaurkoan beste lauzpabost orduko ibilaldi lau samarra ibaiaren paraleloan eta *Umlung* haran estua gainditu ondoren, *Markha* herrira heldu gara, haran osoari izena ematen dion lekura hain zuzen ere. Herri txikia da eta aukera izan dugu arratsaldean inguruetatik ibilalditxoak egin eta bertako monasteriora igotzeko, *Ladakheko* gunerik zaharrenarikora. Herriaren kanpoaldeko landa batean egin dugu lo.

## Uneren batean zubirik gabeko ibi batetik zeharkatu behar izan dugu ibaia

Seigarren egunean *Markhatik* (3850 m) *Skiura* (3450 m) joan gara ibaiaren parean denbora osoan eta unerren batean zubirik gabeko ibiren batetik zeharkatu behar izan dugu. Ibilbidean hainbat herrixka daude eta eraikuntza batzuen hondakinak ikusi ditugu. Gaurko sei orduko ibilaldia luzea egin da eta amaieran *Skiu* herrira heldu gara bertan gaua emateko. Herri honetaino indar elektrikoak heltzen da haranaren beheko aldetik, baina aukera gutxi izan dugu aprobetxatzeko, iluntzean ordu bi besterik ez delako eta intentsitatea nahiko gorabeheratsua. Beraz behar-beharrezkoa bada saia gaitzeko argazki makinaren bateriaren bat kargatzen.

*Markha* haranean emandako hiru egun hauetako ibilaldia laua da, eta gauak herrixketan eman ditugu. Aukera paregabea, beraz, mundutik "galduta eta baztertuta" dauden pertsonekin ordu batzuetan elkarrekin bizitzeko eta haien bizimodua zertxobait ezagutzeko.

## STOK KANGRY GERO ETA GERTUAGO

*Skiu*n bertan, *Markha* haranari agur egiteaz gain, agur ere esan diogu azken bi egun hauetan izan dugun ibilbide lauari. *Skiutik* irten bezain laster, bidea erpindu zaigu eta *Stok Kangryko* oinarritzko kanpalekura heldu arte falta zaizkigun hiru egunetan desnibel esanguratsuak izan ditugu. Zazpigarren egun

honetan, *Skiutik* (3450 m) *Gandla*-ren hego oinarriaino (4350 m) heldu gara, hasieran zintzur batetik eta gero, alde zabalagoatik, *Shingo* (4150 m) herritik igaroz. Guztira lauzpabost orduko ibilaldia etengabeko igoeran. Gaua mendiko bakardadean eman dugu kanpamentuan.

Zortzigarren egunean, altxatu bezain laster, aldats gora bukaezinean *Gandla* (4920 m) lepora igo gara. Lepotik oso minutu gutxian *Gandla* tontortxoan lor daiteke (5025 m). Segidan *Yurutse* (4170 m) eta *Rumbak* (3970 m) herrietarantz abiatu gara oso jaitsiera pikoan. Herrixka bi hauek zeharkatu ondoren, berriro gorantz jo behar izan dugu *Stok La* (4260 m) lepoaren oinarriaino. Egun gogorra gaurkoa, osotara 5-6 orduko ibilaldi gorabeheratsuan. Hala ere, ibili ahala saria izan dugu: hainbat egun pasa ondoren, *Stok Kangry* berriro agertu zaigu bere edertasun osoan, eta alde zeharo ezberdina eskaini digu *Leh* hiritik ikusten genuenarekin konparatuz.

Bederatzigarren egunean *Stok La*-ren oinarritik (4260 m) *Manikarmora* joan gara (4200 m) *Stok La* (4900 m) lepoa zeharkatuz. Gaurkoan ere desnibel handia gainditu behar izan dugu. Kanpalekutik irten bezain laster, sigi-saga igoera zutari ekin diogu *Stok* leporaino. Goitik, sakon-sakonean eta urruntasunean *Indus* ibaia marrazten duen gune berde eta bizia ikusten da. Jaitsieran hainbat haran zeharkatu behar izan ditugu trabesean *Manikarmora* heldu arte. Guztira 6-7 ordu. *Manikarmora* heldu baino pixka bat lehenago, bat egin dugu *Stok* herritik datorren bidearekin eta, *Stok Kangry* igotzeko asmorik edukiko ez bagenu, hemendik *Stok* herrira abia gintezke trekkingari amaiera eman. Ez da gure kasua, beraz *Manikarmon* eman dugu gaua gure mendiari so.

## STOK KANGRYREN MAGALEAN

*Manikarmotik* (4200 m) *Stok Kangryko* oinarritzko kanpamenturainoko (4950 m) ibilaldia laburra da, bi ordukoa edo. Hainbat animalia eta lore izan ditugu bidelagun: marmotak, yakak, eperrak, edelweissak... Zergatik ez lu-





zatu gaurko ibilaldia eta horrela bihar izango dugun tontorrerako desnibela gutxitu? Talde guztiak hemen geratzen dira. Beraz, izango da pisuzko arrazoiren bat horretarako. Itxura denez, gorago ez omen dago kanpalekua jartzeko leku egokirik. Dendak 4950 metroko altueran egokitu ditugu eta ia arratsalde osoa etzanda edo lo egiten eman dugu gauean tontorrari ekiteko.

Egun handia heldu da, oinarrizko kanpamentutik (4950 m) *Stok Kangryko* gailurre-raino (6153 m) joateko, hots, tontorra zapaltzeko eguna. Igoera luzea, aldapatsua eta desnibel handikoa da, 1200 m ingurukoa baina zailtasun tekniko berezirik gabekoa. Oinarrizko kanpamentutik goizaldeko 01:00ean gutxi gorabehera abiatzen gara eta, irten bezain laster, harrizta batetik igotzen da glaziarren morrenaraino (5250 m.). Morrena hau zeharkatu behar da eta, iritzi pertsonala bada ere, gure ustez zatirik desatsegina eta segurtasun gutxienekoa izan zen igoera osoan. Ilunpean zeharkatzen duzu eta, elurraren

erresuma honetan ez dago argi zein den sabiderik egokiena. Gainera izotz-ibaitxo pare bat saltatu behar da nora jausiko zaren oso ondo ikusi gabe.

## Egun handia da, oinarrizko kanpamentutik *Stok Kangryko* gailurrera igotzekoa

Behin morrena pasatutakoan, igoera zutari ekiten zaio, zuzen zuzenean gorantz harrien artean lehenik, eta elur guneak zeharkatuz ondoren, lepora heldu arte (5800 m). Gure esperientzian oinarrituz, esan daiteke sokarik ez dela behar. Bastoiak, aldiz, lagungarriak dira oso eta pioleta eta kranpoiak, gure ustez, oso gomendagarriak. Egia esateko, hainbat artikulutan irakur daiteke kranpoiak ez direla beharrezkoak. Agian denboraldiaren amaieran, abuztuaren azken egunetan, soberan egon daitezke, bidea nahiko zapaldua egon daitekeelako, baina uztailaren eta goizaldeko 04:00 edo 05:00etan, elur guneak oso gogorak ohi daude eta kranpoien laguntza eskertzekoa da, askoz arinago eta seguruago igotzeko aukera ematen dute eta. Ez

■ Gure talde osoa, gu biok eta laguntzailea, mandazaina, gida eta sukaldaria



Argindarra dela-eta, *Skiu* herria kenduta, trekkingean ez dago argirik inon, eta han ere ordu pare batez besterik ez. Datu hau kontuan hartu behar da argazki makinaren baterien mantenerako.

### Gidaria

Gure gidariak argi utzi zigun bere erantzukizuna trekkinga zela, ez *Stok Kangryko* saioa. Igoera gure ardura zela alegia. Hala ere, baldintza hauetan, beste kide bat bezala gurekin batera igotzea proposatu zigun. Eta onartu egin genuen, noski. Ardurarik ez bazuen ere, laguntza handia eskaini zigun gainera. Batez ere, morrena zeharkatzean biderik ez zelako inondik ere sumatzen.

### Noiz joan

Esan bezala, uztailaren eta abuztuaren joatea gomendatzen da, eguraldi lehorra eta segurua baita. Ulergarria denez, eguraldia ezin da "lotu", eta egia da gehienetan montzoia ez dela eskualde honetara heltzen, baina heltzen denean... geureak

da zailtasun kontua soilik, segurtasunarena eta efikaziarena baizik.

Behin lepora heldu ondoren ez dago lantzarik: azken ertza gaingitu behar dugu tontorrera zuzen. Ertzean elur gutxi aurkitu genuen, haizeak garbiturik. Orokorrean ertz zabala, arrisku sentsaziorik gabekoa eta ia bere osotasunean oinez egiteko modukoa dela esan daiteke, nahiz eta lantzean behin eskuen laguntza beharrezkoa izan zailtasunik gabeko trepadatxoren batean. Horrela, tipitapa, zazpi orduko ahalegina egin ondoren *Stok Kangryko* erpinean dauden budisten banderatzokoei ongi etorria eman digute.

Gure ustez, mendi honek jartzen duen zailtasunik handiena desnibela da. Egun berean 1200 metro igo eta jaitea altuera honetan ez da ahuntzaren gaurdiko ezula. Guk baimena lortzerakoan 2 egun erreserbatu genituen ezusteren bat suertatzen bazen, baina lehenengo aukeran tontorra eginda, gaua eman eta trekkingaren azken egunari heldu genion.

Eta horrela, ibilaldiaren hamabigarren egunean, oinarrizko kanpamentua (4950 m) atzean utzirik, berriro ere *Manikarmora* jaitsi gara eta hemendik *Stok* herrira abiatu. Azken eguna izanik eta helburu nagusia lortuta ere, merezi du trekkingari agur dotorea ematea jaitsiera polit honetan. Ibaiaren arroila ikusgarria da eta haitzek osatutako zintzurra benetan harrigarria. Horrela, lauzpabost orduko ibilaldia egin ostean, *Stok* herriko etxeetara heldu gara. Bukatu da. Azken gaua herri honetan eman eta oraindik geratzen zaizkigun egunak *Lehn* eta *Delhin* aprobetxatuko ditugu. □

## Ibaiaren arroila ikusgarri batean behera heldu gara *Stok* herrira: bukatu da

egin du. Adibidez, 2010ean gogor jo zuen eta triskantzen handiak eragin zituen *Leh* eta inguruko herri guztietan *Indus* ibaia ubidetik irten zenean.

### Nola heldu

*Delhin*etik *Lehra* heltzeko bide bakarra hegazkina dela esan daiteke. Badago aukera errepidez ere heltzeko, baina egun batzuetako bidea da. 4000 m-tik gorako zenbait mendate igo behar dira eta bideak hilabeteak ematen ditu itxita elurratigatik.

### *Stok Kangry* igo, trekkinga egin gabe

Inolako zailtzarrik gabe egin daiteke. *Leh* hiriko hainbat agentziak *Stok Kangryra* igotzea eskaintzen dute 5 egunetan. Lehenengo bietan *Stok* herritik *Manikarmora* igo, hirugarren egunean oinarrizko kanpamentura, laugarrenean tontorrerako saioa egin eta 5.ean jaitsi. Zailtzarrik gabe aukera izan daiteke soilik gailurra egin nahi duenarentzat, baina kontuan izan behar da altuerarako egokitzapen eskasa eta denbora urria dela. Beste trekking mota desberdin batzuk egiteko aukera eskaintzen badute ere, guk *Markha* haranean zehar doan trekkinga eta *Stok Kangryko* igoera lotzea erabaki genuen.

## Informazio osagarria

### Antolakuntza

Leh hirian dauden hainbat agentziak antola dezakete trekking hau, baina guk hemendik eramanez lotuta "*abentura bidaiak* edo *bestelako bidaiak*" delako agentzia baten bidez, eta aitortu behar dugu antolakuntza ezin hobea izan zela. Jatekoa, garraioa, kanpina eta lo egiteko material guztia egoki eta txukun izan genuen prest edozein unetan eta lekutan. Gurekin batera trekkinga egiten zuten indiarrek (sukaldaria, mandazaina, gidaria, garraiolaria...) kementsu eta jator jokatu zuten beti. Ezin da gehiago eskatu. Gure ardura bakarra ekipu pertsonala eta tontor egunerako jateko edo edateko zerbaitek berezia eramatea izan zen.

### Jan, edan, lo egin eta argindarra

Jateko orduan ez dago arazorik, antolakuntzak hornitzen baitzaite eguneroko. Ura ere bereaiek prestatzen dute gauero, iragazi eta irakin ondoren. Hala ere, gomendagarria da ura purifikatzeko pilula batzuk eramatea. Gauero antolakuntzak jarritako kanpin-dendan egiten da lo eta gure esku lo-zakua egoten da, besterik ez.